



LUIS-LUZIANO BONAPARTE
(1813-1891)

Egilea:

ROSA MIREN PAGOLA

GIZON OSPETSUA (1813-1891)

Luis-Luziano Bonaparte Napoleon I. haundiaren iloba zen, eta, ustegabeen, 1813an Ingalaterran jaiotzea suertatu zitzaion. Lehenengo ikasketak Italian egin zituen josulagunekin. Unibertsitatean kimika eta mineralogia ikasi zituen. Halere, laster aldatu zituen natur zientziak hizkuntzengatik.

Hogei urte zituelarik italiar batekin ezkondu zen. Ezkontza honek ez zuen asko iraun, eta bigarren ezteitan euskaraz zekien emakumea hartu zuen emazte, Clementine Richard Grandmontagne, Tarbetseko alaba eta bere laguntzaile izan zen Claudio Otaegiren ezkonarreba.

Bere lengusu Napoleon III.ak «Printze» titulua eman zion «Alteza» tratamenduarekin, eta horrekin batera 130.000 frankotako pentsioa ezarri zion. Diru honek bere gustuko bizitza egin eta bere zaletasunak lantzeko aukera eskaini zion. Beraz, kimika eta natur zientziak utzi eta hizkuntzak aztertzeraz eman zen buru belarri. Benetan harrigarria gertatzen da gizon handiki honek alor honetan erabili

zuen berotasuna eta egin zuen ikaragarritzko lana.

Hamazortzi urtez iraun zion pentsioak, baina, Frantziako II. Inperioa galdu zenean, Bonaparte Printzeak ere Inperio hartatik jasotzen zuen laguntza galdu egin zuen. Zoritxarrez, noski, beretzat eta guretzat, egitasmo asko baztertu behar izan bait zituen, hizkuntzen eta euskararen ikerketekin jarraitu bazuen ere.



EUSKARA ASKO MAITE ZUEN GIZONA

Ez dakigu noiz hasi zen euskara ikasten, ez eta nondik edo nola sortu zitzaion euskararako grina ere, baina, gure ustez, hizkuntzalari bezala egin zituen ahaleginik haundienak eta lanik ederrenak euskarari zuzendu zizkion.

Hizkuntzak ikasteko buru argikoa izaki, euskara ondo menderatu zuen. Ikasi zuen euskalkia Gipuzkera izan zen, eta ongi menderatu bide zuen itzulpenak eta zuzenketak egiteko adina izatera iritsi bait zen. Bestalde, euskalki guztiak ezagutu zituen, eta kontatzen denez, Erronkarira joan zenean, hirugarren egunerako baserritarrekin ederki moldatzen zen euskaraz erronkarieraren xehetasun eta bereiztasunak jasotzeko. Berarekin



BONAPARTEren GAURKOTASUNA
Bonaparteren lanak —bereak eta lankideenak— balio handikotzat hartu izan dituzte beti adituek. Gaur egun ere handia da haien gaurkotasuna. Haren heriotze-mendeurrena zela eta, Euskaltzaindiak Londres-en Erakusketa hau aurkeztu ziren (1991), eta Bonaparteren omenez, bi Dialektologi Biltzar ospatu ziren urte berean.

zebiltzan euskaltzaleak harri eta zur uzten zituen, berek ere ez bait zuten beste hainbeste lortzen.

Behin baino gehiagotan aitortu zuen zenbateraino maite zuen euskara, eta bere bizitzako jokabideak ere hori bera adierazten du; izan ere, ez zion sekula utzi euskara ezagutu eta lantzeari eta euskarari buruzko datuak jasotzeari. Eta guretzat hain mesedegarri gertatu dena: etengabeko lan horri zor diogu euskararen euskalki guztien ezagutza eta azterketa.



MEZENAZGOA
Hona Printzearen armarría, eta Londres-eko haren egoitza. Napoleon III.ak emanda, Printze bezala esku batekin jasotzen zituenak, bestearekin eman zituen, hizkuntz ikerlanak, eta bereziki euskararekikoak, sustatzeko.

HIZKETAK JASO ETA ARGITARATZEN

Hizkuntzen bidea hartu zuenetik hil arte hizkuntzalaritzari ekin zion buru belarri. Ingelesa, frantsesa, italiara, gaztelera eta euskara irakurri eta idatzi, trebetasunez irakurri eta idazten zituen. Horiez gain, Europako beste hizkuntza asko ezagutzen zituen. Horren lekuko 1847an Florentzian argitaratu zuen hizkuntzei buruzko bere lehenbiziko lana: 51 hitzez osaturiko lexikoa ematen du hainbat hizkuntzetan euskaratik hasita.

Bonaparte Printzeari hizkuntza mintzatuak interesatzen zitzaizkion, herrian erabiltzen ziren hizketak, alegia, eta horiek batzen eta argitaratzen saiatu zen. Horrexegatik Oxfordeko Unibertsitateak «Doctor Honoris Causa» izendatu zuen eta Ingalaterrako Gladstonen gobernuak pentsio bat ezarri zion hango dialekto eta patoisei buruz eginiko lanagatik.

EUROPAKO
HIZKUNTZAK
Bonaparteren
hizkuntz ikerlan
ugarien artean hau
izan zen
lehenengoa (1847).



3

HIZKUNTZEN ARTEKO ALDERAKETA


XIX. mendeko hizkuntzalari handien ildotik, Bonaparte ere hizkuntzen arteko alderaketa-lanei lotu zitzaien. Era berean, hizkuntzen dialektoen azterketari ere arretarik saiatuena eskaini zion. Hemen, «trumoi» hitzaren itzulpenak.



4

Gero, Bonapartek, lan horiek argitaratu egiten zituen. Argitaraldi mugatuak eta txikiak izan ohi ziren, hamar alekoak gehienez, eta inoiz ale batekoak ere. Baina, bestalde, oso argitalpen zainduak eta apainak izaten ziren, bibliografo eta apainak izaten ziren, bibliografo haundia bait zen Bonaparte, eta batzutan hartzailearen izena ere inprimazten zuen.

Denera 219 liburu argitaratu zituen lau hizkuntzei buruz nagusiki, banaka batzu beste hizkuntza batzuei eskaini bazizkien ere. Lau hizkuntza horietatik kopururik haundiena euskaraz hartzen du 68 libururekin. Izan ere, euskaraz batu zituen itzulpen eta material guztiak argitaratuz joan zen. Bere asmoa euskalki guztiak batuko zituen Bibliaren berebiziko edizioa egitea zen, eta euskalki eta aldaki guztietan dotrinak argitaratzea; baina egoera ekonomikoa makurtu zitzaionean ezin izan zituen asmo horiek nahi bezala aurrera atera.



ITZULPEN EZBERDINAK
Testu bat beraren itzulpenen bidez bildu zituen sarritan Bonapartek euskalkien arteko aldeak, lanbide horretarako lankiderik trebeenak bilatuz.



GIZON BIDAIARIA

Ibiltaria zen berez Bonaparte Printzea, eta ia mundu osoa ezagutu zuen. Euskal Herrira bost bidaiak egin zituen eta batetik bestera ibili ondoren buruz-buru ezagutu zuen. Ez ziren turismo hutsezko bidaiak izan, txango linguistikoak baizik.

Lehenengoa 1856garren urtean egin zuen. Aldez aurretik ezaguna bide zuen Antoine d'Abbadie izan zuen bidai-lagun eta sartzaille Euskal Herrian eta garaiko euskaltzale guztiekin harremanetan jarri zuena ere. Esan dezagun, bidenabar, Antoine d'Abbadie Iparraldean «Lore jokoak» bultzatu zituen izan zela.



BAZTAN, ERRONKARI

Bonapartek landike-sare bat eratu zuen lehenengo bidaiatik bertatik (1856), euskalkiak ongi mugatu eta deskribatu ahal izateko. Baztango euskara (lehenengo argazkian, Elizondo) batez ere B. Etxenike-ren laguntzaz jaso zuen; Erronkarikoa (2. argazkia), berriz, gerora Azkueren lankide ere izango zen M. Mendiatxa bidankoztarrak landu zion.

Bonapartek oso zehatz antolatzen zituen bidaiak, aldez aurretik ongi programatuz egunak, iritsierako orduak, ibilerak, toki bakoitzean eman behar zuen denbora, eta dena idatziz jartzen zuen.





Lurralde guztiak ibiliz gain, bazter denak ezagutu zituen punta batetik besteraino. Gizon ospetsua zenez oso harrera ona egiten zioten toki guztietan, bera iristen zenean jaialdiak eta ospakizun bereziak eginez, berak nahi ez bazituen ere.

Lehenengo bidaian euskal liburu ezagunenak Donostiako Baroja Etxean eskuratu zituen eta Zarauzko Frantziskotarren konbentuan ere eskuizkribu asko aurkitu omen zituen, honela euskal literaturaz ongi hornitu zelarik.



MARKINA, OTXANDIO

Herri jakin batzuetako euskaretan bildu zituen Bonapartek euskalki handiak. Markina, adibidez, bizkaieraren euskalki-eredua zen Aita J.A. Uriarte-k egin zizkion herri hauetako itzulpenak, 1862an argitara emanak.



LANDA-LANARI EKITEN

Bonapartek, euskal hizketa zenbaitek literatura idatzirik batere ez, edo deus gutxi zuela ohartu zenean, hizketa horiek jasotzeari ekin zion. Herriz herri ibili zen euskara jasotzen, Nafarroan eta Iparraldean batez ere; eta berarekin zebiltzan euskaltzaleez kanpo, tokian tokiko euskara ongi ezagutzen zuten lekukoekin biltzen zen saio luze eta neketsuetan. Bazekien zer nahi zuten, eta zehatz eta sakon zuzentzen zituen galderak. Kanpionek kontatzen du Iruñea inguruetako hizkerak ongi ezagutzen zituzten apezekin bildu zen batean, hain izan omen zen saioa luzea eta Bonaparte zorrotza galderetan, urtetzerakoan batek esan omen zuen: «Beharrik honi ez diola, bere osabari bezala, gudari ekiteko eman, bestela, ez zen Jainkoa bera ere mundu honetan libratuko».



EUSKAL ADITZA (1869)
Euskal aditza, euskalkiz euskalki laukitan banaturik eman zuen Bonapartek, dialektoen arteko berdintasunak eta aldeak erakutsi nahiz.

BIDE BERRIAK ZABALTZEN

Erronkari, Zaraitzu, Aezkoa bailaretako hizkerak, ordurarte aztertu gabe zeudenak, urrezko pitxiak izango balira bezala bildu zituen. Berdin Agoitz, Aurizperri, Gares, Elkano edo Oltza eta Goñi bailaretakoak. Hark jaso zuen informazio linguistikoari esker, Nafarroako hainbat lurraldetako hizketak eta haien ezaugarriak ezagutzeko aukera dugu, egun galduak bait daude tamalez.

BIBLIAREN ITZULPENAK

Duvoisin-en itzulpen hau da Bonapartek euskaraz argitara eman zuen obrarik mardulena (1859-1865: bost liburuki). Oraintsu gipuzkeran izan da berriro argitaratua (1972). Uriarte-rena, ordea, osorik itzulia izan arren, partez bakarrik kaleratu zen (1859).

Egin zuen bostgarren bidaian, agindua zuen bezala, Erronkaria itzuli nahi izan zuen, toki horietako hizketa aztertzen jarraitzeko asmoz. Espainiako egoera politikoak, ordea, ez zuen Hegoaldera etortzerik gomendatzen; horregatik Donibane-Lohitzunen jarri zuen egoitza eta Lapurterako aditza aztertzen eman zuen denbora. Bien bitartean, Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkariko lekuko euskaldunak eramanerazi zituen, bakoitzetik bat, honela, hiru asteren buruan, hiru haran horietako aditz-sistema osoa eta lexiko sail ona ere jaso zituen. Bi aste gelditzen zitzaizkionez, Nafarroako beste zenbait lurralde euskaldunekin ere gauza bera egiten aritu zen.



LAGUNTZAILE TREBEEZ EUSKAL AKADEMIA OSATZEN


Printzeak ezin izango zuen sekula eta inondik ere egin zuen lan haundia aurrera atera Euskal Herriko jendeen laguntzarik gabe. Euskal Herrira egin zituen bidaiak luzeak eta emankorrak izan ziren; halere, ezarritako xedeak erdiesteko ezinbestekoa izan zuen laguntzaileen lana.

Bigarren eta hirugarren bidaien artean bederatzi urte igaro ziren. Alabaina, urte hauek ere ez ziren alferrikakoak izan euskararako, laguntzaileek material ugari bidaltzen bait zioten. 33 bat euskal lan argitaratu zituen; Intxausperen *Le verbe basque* eta Duvoisinin *Bible Saindua*, esaterako.

Printzeak behar zituen datuak jasotzen eta eskatzen zituen itzulpenak egiten buru-belarri aritu ziren haren lankideak. Lankidetza estu honen adierazgarri Printzearekin izan zituzten postarremanak dira, hainbeste eta hainbeste gutun bait daude eta ez denak argitaratuak ez ezagutuak. Oso interesgarriak dira: hizkuntzari eta lankideek jarraitu behar zuten metodologiari buruzko hamaika xehetasun linguistikoz eta erizpidez josiak.

Elkarlan oparo honen eta Printzearen eraginaren ondorioz, euskararen inguruan mugimendu haundia sortu zen Euskal Herri osoan. Kultura maila bat zutenen artean euskara jasotzen, euskaraz idazten eta euskara lantzen hainbat hasi ziren; eta beste asko euskararen garrantziaz ohartu zen.

Laguntzaile horiek, Zubererarako eta Lapurterarako lehen aipaturiko Intxauspe Kalonjea eta Duvoisin Kapitainaz gain, ezagunenen artean honako hauek izango lirateke: Erronkarierarako Mariano Mendigatxa; Gizpuzkerarako A. P. Iturriaga eta Klaudio Otaegi; Bizkaierarako Fray J.A. Uriarte; eta Goi-Nafarrerarako, Printzeak hainbeste estimatzen zuen Bruno Etxenike baztandarra, zintzo eta ongi lotzen bait zen azken hau haren erizpideetara.




Herri jakinetako euskarara itzulpenak egin zituztenek zerrenda luzea osatuko lukete. Haatik, d'Abbadieren laguntza eskergaitzaz gain, beste bi laguntzaile apart ere ezin dira ahaztu: Arturo Kanpion eta Aita Arana, azken hau zuzenean ezagutu ez zuen arren; hauek biek, lagundu ezeze, azken aldiko urteetan harekin adiskidetzatza eta harreman haundia izan zuten, epistolarra batez ere.

Laguntzaile eta lankide hauek eginiko lanaren emaitzak ez dira oraino erabat jaso. Esaterako argitaratu gabe daude B. Etxenik berak Goi-Nafarreraz bakarrik batu zizkion 40 dotrina, hainbat aldakitan idatziak.



KATALOGOAK

Bonapartek bere diruz kaleratutako euskal artigalpenak ugariak izan ziren: 68ren bat, baina ale gutxiko edizioak ziren gehienetan. Adituek guztien berri jakin zezaten, haien katalogoak ere inprimatu zituen. Gz. Echeagarai eta J.A. Arana-ri zor diegu orain (1989) argitalpen eta eskuizkribuen katalogorik osoena (Euskaltzaindia).



GIZON ESKU ZABALA

Bere lanari eta izateari buruzko ikuspegi osoago izateko esan behar da, bidenabar bada ere, hogei hogerleko ordaintzen zituela dotrina bakoitzaren itzulpena edozein aldakitarara egiteagatik. Apezei oso brebiario dotoreak, ilustrazioz apainduak, ematen zizkien. Lekuko bezala parte hartzen zutenekin ere atentziorik izaten zuen. B. Etxenike zenaren etxean oraindik ere estima haundian gordetzen dira hark eginiko opariak, Etxenikek inoiz ez bait zuen sosik ere hartu nahi izan.




ELEANIZTUNA
Bonaparte Printzeak Europa osoko hizkuntz geografia zuen gogoan, eta bertoko hainbat hizkuntza ezagutu eta ikertu zuen. Nazioartean zituen harremanei esker, euskararen ikerkuntzari ere bultzada ederra eman zion Europako hizkuntzalarien artean.

BI MATERIAL MOTA

Bonaparte izan zen landa-lana sistematikoki egin zuen lehenbizikoa Horrez gain, ordea, itzulpenak ere asko eginerazi zituen. Gehienbat Bibliakoak nahiz Testamentu Berrikoak nahiz Zaharrekoak, eta dotrinak. Batez ere gaztelaniatik edo frantsesetik euskarara izan ohi ziren. Itzulpen horietan zorrotz jokatzeko berak eskaturiko aldakietara eta herriko hizketetara hertsian lotu behar izaten zen, barietate literariorekin nahasi gabe, eta beste hizketekin nahasteko arriskutan ere ipini gabe. Lexikoa, ortografia, galdutako hotsen lekuan jarri behar ziren zeinuak; hitz batez, dena seinalatzea eskatzen zuen.

11




LAN KRITIKATUA

Azkuek eta Julio Urkijok batez ere kritikatu zuten itzulpenez hainbeste baliatu izan zelako. Halere, bere helburuak bete nahi bazituen material linguistiko berdinak edo homogeneousak batu beharra zuen nahi eta nahi ez. Ondorioak ateratzeko eta euskalkiak, azpi-euskalkiak eta aldakiak finkatzeko materialek erkagarriak behar dute izan, elkarren artean alderatzeko bezalakoak. Itzulpena zen, beraz, testu erlijiosoena bereziki, horretarako biderik egokiena. Bibliako eta dotrinetako testuek ez dute itzulpen askeegirik onartzen, eta horri esker ezin egokiagoak gertatzen zitzaizkion bere xedeak erdiesteko. Bestalde, herri-mailako hizketetara egin behar zirenez gero, herri xehearen artean dotrina eta Biblia ziren testurik ezagunenak. Izan ere, Europa guztian lan modu hori usatuena zen XIX. mende osoan.



EUSKAL DIALEKTOLOGIA
Bonaparte izan da geroko euskal dialektologiari oinarririk landuenak jarri dizkion ikertzailea, eta horrela ondoko lanen bide-erakusle gertatu da. Horren ondorioztat har daiteke Azkuek eta Euskaltzaindiko hainbat lankidek jasotako «Erikizkundirukoitzak».



EUSKALKIEN SAILKAPENA

Bonapartek, euskararen inguruko lanetan sartu zenetik, izan zuen helburua euskararen sailkapen dialektala egitea zen. Lan hau luzea gertatu zitzaion, urte aunitz hartu zizkiona. Hiru sailkapen egin zituen laugarrenarekin behin-betikoa burutu aurretik.

Dialektologian ihardun duen edozeinek badaki zein zaila den muga dialektalak ezartzea, baina, inork jakitekotan, Bonapartek zekien hori. Bazekien, gainera, zein kritika egingo zioten; halere, arrazoitan oinarrituz, eutsi egin zien bere erizpideei. Laugarren sailkapena eta azkena, gero egin zizkion ikutuekin, egun ere baliagarria da, eta, orohar, denok onartzen duguna aldaketa haundirik gabe. Sailkapen honek, bestalde, benetako heldutasuna azaltzen du; urteetako lan luzearen ondoren, ikuspegi egina euskal dialektologiari buruz. Hori aski ez balitz, datuak biltzen eta ñabardurak eta aldakiak behar bezala bereizten asmatzeko, oharmen zorrotza eta sentiberatasun handia ere ezinbestekoak dira.

Honela euskararen ezaugarriak zehaztuz eta ongi banatuz, sailkapen ongi buruturiko honetara iritsi zen. Hortik datorkio gaur egun ere duen baliogarritasuna.

SAILKAPEN ZEHATZA

Laugarren sailkapen hau 1869. urtean Londres-en *Le verbe basque en tableaux* izenburua duen liburuan argitaratu zuen.

Euskalki guztiak hiru talde nagusitan banatzen ditu:

A, Bizkaiera.

B, Gipuzkera, Iparraldeko eta Hegoaldeko Goi-Nafarrera eta Lapurtera.

C, Zuberera, Ekialdeko eta Mendebaleko Behe-Nafarrera.

Zortzi euskalki dira, beraz; eta euskalkiek, aldi berean, hogeitabost azpi-euskalki hartzen dituzte; eta azpi-euskalkiek berrogeitamar aldaki, aldaki bakoitza herrigune baten kokatzen delarik.

EUSKALKIEN IKUSPEGI ZORROTZA

Bonapartek eginiko sailkapen honek antz handia du alderdi nagusietan historiak suposatzen duen banaketarekin. Aro zaharreko leinuen banaketa eta euskalkiena bat datoz. Baina Bonapartek ez du erizpide historikotara jotzen, bere lana egunero erabiltzen den hizkuntzan oinarritzen bait da. Landa-lan luzea eta datuen bilketa neketsua egin zituen, eta sailkapen saioak ere behin eta berriz. Lan iraunkor horrek aski ongi oinarritu zuen egin zuen sailkapena, eta ez zuen arrazoi historikotara jo beharrik izan. Halere, Bonapartek hizkuntzaren bidez historiak adierazten duena egiaztatu egin zuen.



EUSKALKIEN MAPA
Bonaparteren lanetatik ikusiena, eta ezagunena, euskalkien mapa hau da: euskararen euskalkizko lurralde-irudia, ba, Bonaparteri zor diogu.

EUSKARAREN MAPAREN EGILEA

Bonapartek egin zuen lanik ikusgarriena eta, agian, garrantzitsuena hizkuntzaren mapa da, euskararena, alegia. Mapa honen interesa neurtezina da. Aipaturiko sailkapenean orokorki ematen dira euskalkiak, azpi-euskalkiak eta aldakiak, baina nondik nora hartzen zuen bakoitzak azaldu gabe. Honek hutsune handia uzten zuen, ez bait zitezkeen ezagutu hizketa bakoitzaren muga zehatzak. Mapari esker hutsune larri hori bete egiten da, hor mugak zehatz azaltzen bait dira.

Bestalde, lehenengoz egiten eta argitaratzen den euskararen mapa linguistikoa da. Honen balioa neurtzeko kontutan izan behar da zein zaila den aldaki bakoitzari mugak finkatzea eta, alderantziz ere, herrigune bakoitzari bere aldakia ezartzea.

EUSKARAREN EGOERA XIX. MENDEAN

Horrez gain, euskararen egoera demofrafikoa ere seinalatzen da. Mapan erabiltzen dituen koloreen bizitasunaz baliatzen da edozein tokitako mintzaleen kopuru maila aditzera emateko. Euskalki bakoitzak bere kolorea du. Koloreak, zenbat eta biziagoa, hainbat eta hobekiago gordetzen dela euskara adierazten du, hau da, eskuarki hitz egiten dela. Kolore ahulagoak, berriz, hiztun gutxiago dituela euskalkiak agertzen du, edo euskara atzeraka doala behinik-behin.



HILOBIA
1891n hil zen Bonaparte Printzea, Italian; baina, Ingalaterran jaioa zen honi, hantxe eman zioten lurra, Londres-eko St. Mary kanposantuan.

HEGOALDEKO GOI-NAFARRERA HILTZORIAN

Hegoaldeko Goi-Nafarrera da euskalkirik aunatuena, erditik gora kolore ahulean bait dago, egoera atzerakorra agertuz. Izan ere honela zen, hedaduraz zabalena zen euskalkia urte gutxiren buruan erakuskai huts bihurtu bait zen. Mende-erdi eskasean atzerakada izigarria egin zuen, eta gaur egun gelditzen diren hondarrak galtzorian dauden erlikiak dira.

Beste hainbeste esan daiteke Zaraitzeraz, baina, batez ere, egun galdurik dagoen Erronkarietaz biak lekutzen bait zihoazen dagoeneko Printzearen garaian.

ESKUIZKRIBUAK FORU ALDUNDIETAN

Printzea hil ondoren bere alargunak Chicagoko liburutegi batera saldu zuen senarraren liburutegi osoa. Azkueri esker, garaiz mugitu zelako, Euskal Herrira etorri ziren haren eskuizkribuak. Kopuru haundia osatzen dute, eta euskaraz eta beste hizkuntza eta dialekto askotako izkribuak dira. Euskal Foru Aldundiek erosirik, gehienak noiz argitaratuko eta ikertuko zai daude Bonaparteren lana eta euskalkien bereizgarriak hobetoago ezagut ditzagun.

LAN BALIOSOA OTE?

Egin zituen txango linguistikoetan batu zituen datu gehientsuak aipaturiko eskuizkribu horietan daude eta baliozko datuak dira. Begirada zorrotza eta adimen zolia erabili zituela Bonapartek uste dugu bere ibileretan. Hizkuntzaren elementurik garrantzitsuenak ezagutzea lortu zuen, batez ere gehien landu eta ahoz jaso zituen hizketetakoak; hauek batez ere, Iparraldeko hizketak dira eta Piriniotako Haranetakoak, Hegoaldeko Goi-Nafarrerakoak eta Iparraldeko Goi-Nafarrerako hizketa batzuek. Horiez gain, argitaraturik daude hainbeste hizketei buruzko lan zehatzak eta ezaugarri linguistikoz beteak.



AZKENA

Bonapartek Euskal Herrian ordurarte ibili gabeko bideak ireki zituen. Bide horietan ekintza garrantzitsuak eta lan mardulak burutu zituen. Baina usterik sendoena dugu, ekintza guztien gaintik, XIX. mendeko azkenetan eta XX. mendeko lehen herenean emaitza ezin hobek eman zituzten gure hizkuntzarekiko kezka eta afana ernarazi zituela herri osoan, Iparraldetik Hegoaldera eta Ekialdetik Mendebaleko azken mugetaraino. Besteak beste. Azkuek berak Printzearen eragina aitortzen du, eta Bonaparteri esker euskara lantzeko bidea hartu omen zuen; halaber, Kanpionek berak ere asko miresten zuen.

Bonaparte Printzea izan zen euskararen inguruan hizkuntzalaritzako lan zientifikoa hasi eta hedatu zuena.

Bera izan zen lehena material linguistikoak metodoz batzen eta idatziz edo mapetan ezarriz eskaintzen Laguntzaile sail bat prestatu eta euskararen azterketa linguistikotara zaletu zuen. Guzti hau gutxi balitz, argitalpen ugari ere hor utzi zizkigun Horiek denak direla eta, Bonapartek gure begiramen osoa merezi du.

ALDUNDIAK

Hiltzean, 25.000 liburuko biblioteka utzi zuen Printzeak, eta eskuizkribu asko. Haiiek, azkenik, Estatu Batuetara joan ziren eta Chicago-ko Neuberry Library-n daude. Euskararekiko eskuizkribuak, oster, R. Azkue eta Fermin Lasala-ri esker, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Aldundiek erosi zituzten. Berrikitzen denak mikrofilmatuak izan dira, eta hiru aldundietan eta Azkue Bibliotekan daude, osorik, guztien eskuizkribuak orain.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Azkue Biblioteka (Euskaltzaindia).*
- *F.O.A.T.*
- *Nafarroako Gobernua.*
- *Publizitate Zerbitzua (E.J.).*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 1991ko abendua

Ale-kopurua: 2.000

Berrinprimaketa: 1.a, 2000ko abendua

Ale-kopurua: 2.000

© Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Fotokonposizioa: Rali, S. A.
Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao (Bizkaia)

Inprimaketa: Estudios Gráficos Zure, S. A.
Carretera Lutxana-Asua, 24 - 48950 Erandio Goikoa (Bizkaia)

ISBN: 84-457-1611-5 (Obra osoa)
84-457-1612-3

L.G.: BI-3081-00

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística